

EBAZPENA, 2022KO URTARRILAREN 10EKOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZUZENDARITZA HORREK 2021EKO ABENDUAREN 1EAN, 2020-2021 IKASTURTEAN HABEREN A1, A, B1, B2 MAILAK EUSKALTEGIKO EDO AUTOIKASKUNTZARAKO ZENTRO HOMOLOGATUETAKO EBALUAZIOAN MAILAREN ATALASEA GAINDITUZ, EDO MAILA HORIEK EDO HORIEN BALIOKIDEAK EGIAZTATU DITUZTEN IKASLEEI DIRULAGUNTZAK ONARTZEKO EMAN ZUEN EBAZPENA ZUZENTZEKO DENA.

GERTAKARIAK

I.- HABEren zuzendari nagusiaren 2021eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez 2020-2021 ikasturtean HABEren komunikagaitasun- eta euskara-mailak edo horien baliokideak gainditu dituzten ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak arautu eta dagokion deialdia egin zen. Ebazpena uztailaren 14iko EHAAr argitaratu zen, eta bere huts-zuzenketak uztailaren 30 eta abuztuaren 9an.

II.- Ebazpen beraren 7. oinarriak xedatutakoari jarraikiz, eta 6. oinarrian finkatutako irizpideak aplikatu ondoren, HABEren zuzendari nagusiak, 2021eko abenduaren 1eko Ebazpenaren bidez, eskariak onartzea (I. eranskina) edota baztertzea (II. eranskina) erabaki zuen, onartutako eskari bakoitzari zegokion dirulaguntza adieraziz, eta baztertutakoen arrazoiak zehaztuz.

III.- Aipatu 2021eko abenduaren 1eko Ebazpena argitaratu ondoren, HABEk baieztatu ahal izan du, alde batetik aipatu 2021eko abenduaren 1eko Ebazpenean ez zituela hainbat eskarien gaineko erabakiak argitaratu eta, bestetik, onartutako eskarien nahiz ukatutakoen zerrendatan akatsak egin zituela. Horretaz ohartuta, Ebazpen honen eranskinean zerrendatzen diren eskarien gaineko ebazpena aldatzea eta argitara ematea onartzen da, aipatu 2021eko abenduaren 1eko Ebazpenean adierazitakoa ez baita zuzena.

LEGEZKO OINARRIAK

Lehena.- Urriaren 1eko Herri Administrazioen administrazio-prozedura erkidearen 39/2015 Legeak, 109.2 artikuluan ahalbidetzen da Administrazioak bere ekimenean sortutako akatsak zuzentzeko aukera. Hala dio xedapen horrek:

“Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunak eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak”.

Bigarrena.- Errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko eskumenari dagokionez, zuzendu beharreko ekintza bera gauzatu duen organori dagokio.





Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Zuzendaritza nagusi honen 2021eko abenduaren 1eko Ebazpena zuzentzea, A1, A2, B1 eta B2 euskara-mailak edo horien baliokideak egiaztatu dituzten ikasleei dirulaguntzak ematekoa, eta, ondorioz, Ebazpen honen eranskinean zerrendatzen diren ikasleei bertan adierazitako dirulaguntza ematea.

Aipatu laguntza-kopuruak finkatzeko kontuan hartu dira eskatzaile bakoitzak egiaztatutako mailak edota euskaltegian gainditutakoak, bakoitzak euskaltegietan edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetan ordaindu eta adierazi dituen matrikula-kopuruak, HABEk aurreko urteetako deialdien bitartez diruz lagundutako ikastaroak eta beste Herri Administrazioetatik ikasleak eskuratu dituen dirulaguntzak, azken hauek deialdiaren 8. oinarriak dioenari begira.

Bigarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoen iragarki-taulan (<http://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>) argitara emanez eta, emandako dirulaguntzaren publizitateari dagokionez, HABEren web orrialdean argitaratuz (www.habe.euskadi.eus).

Hirugarrena.- Ebazpen honetako eranskinean esleitutako laguntzak ordaintzeko agindua ematea.

Laugarrena.- Interesdunei jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daitekeela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostian, 2022ko urtarrilaren 10ean.

Izp.: Jokin Azkue Arrastoa

HABEren zuzendari nagusia